# GOBERNU BILERA

Prentsa-Txostena
Erabaki nagusiak

# CONSEJO DE GOBIERNO

Dossier de Prensa
Acuerdos destacados

**Vitoria-Gasteiz, 2022ko maiatzak 3**

**Vitoria-Gasteiz, 3 de mayo de 2022**

Navarra, 2 – 01007 VITORIA-GASTEIZ
Tef. 945 017 972 – e-mail: prentsa@ej-gv.es

**Lehendakaritza**

## EUSKO JAURLARITZAK 2030ERAKO TOKIKO IDAZKARITZAREN EGOITZA HARTZEKO HAUTAGAITZA AURKEZTU DU NAZIO BATUAN

Joan den ostiralean, apirilaren 29an, Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuen idazkariorde nagusiaren 2030 Tokiko Koalizioaren Zuzendaritza Kontseiluaren bileran parte hartu zuen, New Yorken. Espainiak Nazio Batuen aurrean duen Misio Iraunkorrarekin batera, **Eusko Jaurlaritzak** New Yorken duen ordezkari Unai Telleriak Euskadiren **hautagaitza aurkezteko aukera izan zuen, Lokala 2030 izeneko ekimenaren idazkaritzaren egoitza nagusia Bilbon hartzeko**.

Proposamen hori bederatzi hilabete baino gehiagoko sustapen-prozesu baten emaitza izan da. Prozesu horretan, Lehendakaria buru zela, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak eta Gizarte Trantsiziorako eta Agenda 2030erako Idazkaritza Nagusiak zuzenean esku hartu dute. Eusko Jaurlaritzaren bultzada horri esker, lankidetza-esparru bat sortu da Espainiako Gobernuarekin, zehazki 2030 Agendaren Estatu Idazkaritzarekin eta Lankidetzarako Estatu Idazkaritzarekin, bai eta Bilboko Udalarekin ere. Horren guztiaren ondorioz, hautagaitza hori formalizatu egin da, eta ofizialki aurkeztu da.

**Tokiko Idazkaritza 2030**

Nazio Batuak mundu mailan 2030 Agendaren kokapena sustatzeko prozesu garrantzitsu bat hedatzen ari da, eta horren barruan sartzen da Nazio Batuen sistemak tokiko, eskualdeko eta nazioko gobernuei laguntzea, GJHak lurralde-eremu bakoitzean sustraitzeko.

NNNUUko Idazkaritza Nagusiko Bulego Betearazleak 2030erako Tokiko Ekimena abiarazi du. Haren helburua Nazio Batuen Garapen Sistemaren koordinazioa eta kohesioa indartzea da, GJHen kokapenaren inguruan.

2030erako Tokiko Ekimenaren helburu nagusietako bat tokiko eragileen eta helburu globalen arteko lotura indartzea da, eragile anitzeko plataforma baten bidez. Plataforma horretan, NN.UU agentziek, tokiko eragileek (hala nola sektore pribatuak, tokiko, eskualdeko eta estatuko gobernuek) eta beste eragile garrantzitsu batzuek elkarlanean jarduten dute aliantzen bidez, eta konpromiso berriak garatzen dituzte helburu komun eta partekatuen alde.

Toki2030eko euskal egoitzari esker, Bilbo eta Euskadi erreferentzia-puntu orokor gisa kokatuko lirateke GJHen kokapenari dagokionez, bai eta maila anitzeko koherentzia eta lankidetza publiko-pribatua bultzatzeari dagokionez ere, 2030 Agenda benetan inplementatzeko.

**Lana eta Enplegua**

## GOBERNU KONTSEILUAK 2023KO LAN-EGUTEGIA ONARTU DU

Gobernu Kontseiluak 2023ko lan-egutegia onartu du gaur Euskadirako, eta ohiko jaiegunak mantendu ditu, 2022an ez bezala; izan ere, 2022an irailaren 6a jaieguna izango da, Juan Sebastian Elkano Getariako itsasgizona buru duen munduari egindako lehen itzuliaren bosgarren mendeurrena ospatzeko.

Hauek izango dira lan-egutegiak Euskadin 2023an izango dituen hamabi jaiegunak:

- Urtarrilaren 6a (Errege-eguna)
- Apirilaren 6a (Ostegun Santua)
- Apirilaren 7a (Ostiral Santua)
- Apirilaren 10a (Pazko bigarrena)
- Maiatzaren 1a (Langileen eguna)
- Uztailaren 25a (Santiago)
- Abuztuaren 15a (Jasokundea)
- Urriaren 12a (Nazio-jaieguna)
- Azaroaren 1a (Domu Santu eguna)
- Abenduaren 6a (Konstituzio-eguna)
- Abenduaren 8a (Sortzez Garbiaren eguna)
- Abenduaren 25a (Eguberri-eguna)

Jardunaldi horiei beste bi jaiegun gehitu behar zaizkie, udalek eta aldundiek dekretatu beharrekoak.

**Ekonomiaren Garapena, Jasangarritasuna eta Ingurumena**

## EUSKO JAURLARITZAK 80.000 EURO ERABILIKO DITU SASOIKO LANGILEENTZAKO OSTATUAK HOBETU ETA SORTZEKO

- **Egonaldian zehar Euskal Autonomia Erkidegoan integratzera bideratutako ostatu-baldintza duinak bermatzeko**
- **Gaur egun, sasoiko langileentzako ostatuen erregistroan 136 higiezin daude, azken urtean hamar gehitu ondoren, eta 1.386 pertsona har ditzakete**

Eusko Jaurlaritzak 80.000 euro erabiliko ditu aurten nekazaritza-sektorean lan egiten duten sasoiko langileei ostatu emateko higiezinen sorrera, egokitzapena edo ekipamendua finantzatzeko, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuaren Aginduan zehazten den moduan. Agindu hori Jaurlaritzaren Kontseiluak onetsi zuen azken bileran. Helburu horretarako higiezinen jabe diren pertsona fisiko, juridiko, publiko edo pribatuek jaso ahal izango dituzte laguntza horiek.

Sasoiko langileentzako ostatu-sarea areagotzeko eta hobetzeko proiektuak edo jarduerak lagunduko dira diruz, bai eta egonaldian zehar Euskal Autonomia Erkidegoan integratzera bideratutako ostatu-baldintza duinak bermatzekoak ere. Jarduera horien barruan egon daiteke ostatu horiek eraikitzea edo, hala badagokio, erostea, eta gaitzea, eraberritzea, handitzea, egokitzea, hobetzea eta ekipatzea, erregistratutako ostatua izateko eskatzen den araudia bete ahal izateko.

Sasoiko langileei ostatu emateko higiezinak eraikitzeko edo, hala badagokio, erosteko laguntzaren gehieneko zenbatekoa 20.000 eurokoa izango da. Inbertsioak eta gastuak gauzatzeko epea 2022ko urtarrilaren 1etik 2022ko abenduaren 31ra bitartekoa izango da.

Aginduan zehazten denaren arabera, laguntzen zenbateko zehatza zehazteko, kasu bakoitza honako irizpide hauen arabera aztertuko da: proiektuaren kokapena (lehentasunezko eremuetan edo landatartasun-maila handiarekin), sustatzaile mota (indarrean dagoen Sasoiko Lanaren Arretarako Plan Integralean ezarritako nekazaritzako sasoiko lanaren programari harrera egitea, emakume nekazaria, etab.), ostatu-plazen kopurua edo plaza bakoitzaren batez besteko kostua.

Sasoiko Lanaren Arretarako IV. Plan Integralaren barruan sartzen dira laguntza horiek. Plan horrek sasoiko lanaren inguruan sortutako beharrei erantzungo dieten jardueren plangintza koherentea eta koordinatua arautzen du. Azken helburua da arauz ezarritako gutxieneko bizigarritasun- eta duintasun-baldintzak betetzen dituzten behar adina ostatu-plaza izatea, eta hitzarmenak eskatzen duena betetzea.

## Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta funtsak erabat agortzen direnean edo ekitaldi honetako azaroaren 15ean amaituko da. Horren berri emango da Landaren eta Itsasertzaren Garapeneko zuzendariaren ebazpen baten bidez (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da)

Eskaera-eredua Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren egoitza elektronikoan egongo da eskuragarri, agindua EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera: https://www.euskadi.eus/servicios/1013808. Pertsona fisikoek aurrez aurre zein elektronikoki aurkeztu ahal izango dituzte eskaerak.

**Ekonomia eta Ogasuna**

## EUSKO JAURLARITZAK ALBERTO ALBERDI I. SARIA DEITU DU EUSKAL EKONOMIAREKIN ZERIKUSIA DUEN DOKTOREGO TESIRIK ONENA SARITZEKO

Gobernu Kontseiluak gaur asteartea onartu du Alberto Alberdi I. Sariaren deialdia euskal ekonomiarekin zerikusia duen doktorego tesirik onena saritzeko.

Sariak 2020ra arte Eusko Jaurlaritzako Ekonomia, Finantza eta Aurrekontuetako sailburuordea izan zenaren izena darama, bere ibilbidean irudikatutako zerbitzu publikoko printzipioei eta balioei aintzatespena adierazteko. Alberto Alberdiren karrera profesionalak lanbideko lagunen aitorpena eta begirunea, zerbitzua emateko bokazioa eta euskal ekonomia aldatzeko eta produktiboagoa eta, aldi berean, justuagoa eta ekitatiboagoa izateko analisirako eta lanerako gaitasun nekaezina biltzen ditu.

Era berean, uste da sari hau tresna ona dela gazteei euskal ekonomia ikasteko eta sakontzeko pizgarri bat emateko eta ikertzaile gazteak Alberto Alberdiren lidergoak markatutako ibilbide profesionala jarraitzera bultzatzeko.

Horrez gainera, deialdiaren helburuak dira, besteak beste, ikerketarako ahalmena azaleratzea eta ekonomiaren arloan interesa eta talentua duten gazteak aurkitzea eta hasi berria duten ikertzaile-karreran laguntzea, bai eta ekonomia aplikatuaren arloko ikerketa sustatzea eta gure gazteen gaitasun intelektuala eta talentua aprobetxatzea ere euskal ekonomia hobetzeko.

Sariaren oinarri arautzaileen arabera, Saria eskuratzeko prozeduran soilik parte hartu ahal izango dute 2019ko urtarrilaren 1etik Gobernu Kontseiluak gaur onartu duen agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hilabeteko epean Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateetako batean defendatu eta gainditu diren doktorego-tesiek, eta adierazitako hori izango da eskaerak aurkezteko epea ere.

Saria izango da 6.000 euroko konpentsazio ekonomikoa kalifikazio-epaimahaiko kideen artean puntuaziorik onena lortzen duen tesiaren egilearentzat, bai eta ikerketa-lana eta ondorio nagusiak argitaratzea eta hedatzea ere.

### Hitzarmena euskal unibertsitateekin

Bestalde, Gobernu Kontseiluak hiru euskal unibertsitateekin (Euskal Herriko Unibertsitatea, Deusto Business School-Deustuko Unibertsitatea eta Mondragon Unibertsitatea) lehenengo hitzarmena sinatzea ere onartu du, Unibertsitate Master Ofizialeko ikasleek curriculumetik kanpoko praktika akademikoak egiteko.
Praktika akademiko horien bidez ekonomiaren arloan interesa eta talentua duten ikasleen ikerketarako ahalmena bideratu nahi da, bai eta formakuntza-

praktiken bidez hasi berria duten ikertzaile-karrera eta Master Amaierako Lana egitea erraztu ere.

**Hezkuntza**

## HEZKUNTZA SAILAK 500.000 EURO BIDERATU DITU LANBIDE HEZIKETAKO ERASMUS+ MUGIKORTASUN PROGRAMETARAKO

Gobernu Kontseiluak, Hezkuntza sailburuaren proposamenez, gaurko bileran onartu du Lanbide Heziketan ikaskuntzarako mugikortasun-ekintzak antolatu eta garatzeko dirulaguntzak deitzen dituen agindua, Erasmus+ programaren barruan.

500.000 euroko zenbatekoa duen Agindu honen helburua da, Erasmus+ programaren 2022ko deialdian, ikaskuntza arrazoiengatik, pertsonen mugikortasunerako onartutako proiektuak kofinantzatzeko dirulaguntzak ematea. Mugikortasun-proiektu horiek 2022-2023 ikasturtean gauzatu beharko dira. Mugikortasun horien azken onuradunak Euskal Autonomia Erkidegoko Lanbide Heziketan matrikulatutako edo titulatutako ikasleak edo euskal Lanbide Heziketako irakasleak izan daitezke.

Europako Batasunak mugikortasun jarduera horiek finantzatzeko egiten duen ekarpen ekonomikoa ez da nahikoa izaten jarduera horiek gauzatu ahal izateko, beraz ezinbesteko gertatzen da deialdi hauek egitea Europako finantzazioak hartzen ez duen portzentajea osatzeko.

### 927 ikasle eta 569 irakasle

2021-2022 ikasturtean Euskadiko Lanbide Heziketako 927 ikasle izan dira orotara, bai ikastetxe publikoetakoek bai itunpekoek, Erasmus+ mugikortasun proiektuetan parte hartzeko laguntza hauen onuradun, iazko deialdien bidez. Irakasleak berriz, 569 izan dira.

Deialdi honek laguntzen dituen ikasleen zein irakasleen mugikortasun-ekintzek honako helburu hauek sustatzen dituzte:

- Parte-hartzaileei laguntzea ezagutza, trebetasunak eta gaitasunak bereganatzen, haien garapen pertsonala bultzatze aldera.
- Lanbide Heziketako ikasleei atzerrian prestakuntza jasotzeko aukerak ugaritzea.
- Ikasleei beharrezko dituzten trebetasunak ematea, hezkuntza eta prestakuntza-arlotik lan-merkatura igaro daitezen.
- Hezkuntzaren eta Lanbide Heziketaren esparruetan ohitura berritzaileak garatzen laguntzea eta horien transferentzia lortzea bertan zein herrialde parte-hartzaileetan.

**Osasuna**

## OSASUN SAILAK, AURTEN ERE, 300.000 EURO BIDERATU DITU, GIB/HIESAREN, C HEPATITISAREN ETA SEXU-TRANSMISIOAREN BIDEZKO INFEKZIOEN PREBENTZIOAN ETA KONTROLEAN LAN EGITEN DUTEN IRABAZI-ASMORIK GABEKO ERAKUNDEETARA

Gobernu Kontseiluak, gaur, Gotzone Sagardui Osasuneko Sailburuaren aginduaren berri izan du; haren bidez, aurten ere, 2022an, GIB/hiesa, C hepatitisa eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioa prebenitzeko eta kontrolatzeko jarduerak garatzen dituzten gizarte-ekimeneko eta irabazi-asmorik gabeko erakundeentzako laguntzen deialdia egin da. Laguntzak, guztira, 300.000 eurokoak izango dira.

Osasun Sailak, hala, EAEn erakunde horiek GIB/hiesaren, C hepatitisaren eta sexu-transmisioaren bidezko infekzioaren eremuan egiten duten lan handia sustatzen du, kontuan izanik ezinbestekoa dela administrazio publikoek infekzio horien transmisioa prebenitzeko eta dagoeneko birusaren eramaileak diren pertsonen egoera hobetzeko kausa komunean betetzen duten ekintzarekin batera.

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamunetik aurrera.

**Presidencia**

## EL GOBIERNO VASCO PRESENTA EN NACIONES UNIDAS LA CANDIDATURA DE EUSKADI PARA ACOGER LA SEDE DEL SECRETARIADO LOCAL 2030

Este pasado viernes, 29 de abril, el Gobierno Vasco participó en Nueva York en la reunión del Consejo de Dirección de la Coalición Local2030, de la Vicesecretaria General de Naciones Unidas. Junto con la Misión Permanente de España ante las Naciones Unidas, el Delegado del Gobierno Vasco en Nueva York, Unai Tellería, tuvo la oportunidad de presentar la candidatura de Euskadi para albergar en Bilbao la sede central del Secretariado de la Iniciativa denominada Local 2030.

La gestación de esta propuesta ha sido el resultado de un proceso de más de nueve meses de impulso en el que, con el liderazgo del Lehendakari, han intervenido directamente la Secretaría General de Acción Exterior y la Secretaría General de Transición Social y Agenda 2030. Este impulso del Gobierno Vasco ha permitido crear un marco de colaboración con el Gobierno español, concretamente con la Secretaría de Estado de Agenda 2030 y con la Secretaría de Estado de Cooperación, así como con el Ayuntamiento de Bilbao. Todo ello, ha desembocado en la formalización de esta candidatura que ha sido ya oficialmente presentada.

### Secretariado Local 2030

Naciones Unidas está desplegando a nivel mundial un importante proceso de promoción de la localización de la Agenda 2030, lo que incluye el apoyo del sistema de las Naciones Unidas a los gobiernos locales, regionales y nacionales para enraizar los ODS en cada ámbito territorial.

La Oficina Ejecutiva de la Vice-Secretaría General de NN.UU. ha lanzado la Iniciativa Local2030. Su objetivo es reforzar la coordinación y la cohesión del sistema de Desarrollo de NN.UU. en torno a la localización de los ODS.

Una de las principales misiones de la Iniciativa Local2030 es fortalecer la conexión entre actores locales y los objetivos globales a través de una plataforma multi-actor donde las Agencias de NN.UU., los actores locales como el sector privado, los gobiernos locales, regionales y estatales y otros actores relevantes colaboran a través de alianzas y desarrollan nuevos compromisos en pos de objetivos comunes y compartidos.

La sede vasca de Local2030 permitiría situar a Bilbao y a Euskadi como un punto de referencia global en materia de localización de los ODS, así como de impulso de la coherencia multinivel y de la colaboración público-privada para la efectiva implementación *de la Agenda 2030*.

**Trabajo y Empleo**

## EL CONSEJO DE GOBIERNO APRUEBA EL CALENDARIO LABORAL DE 2023

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy el calendario laboral de 2023 para Euskadi que mantiene las fechas festivas habituales a diferencia de este 2022, en el que se ha incorporado como jornada festiva el 6 de septiembre en conmemoración del quinto centenario de la primera vuelta al mundo capitaneada por el marino de Getaria Juan Sebastián Elkano.

Los doce festivos que tendrá el calendario laboral en Euskadi en 2023 serán:

- 6 de enero (Reyes)
- 6 de abril (Jueves Santo)
- 7 de abril (Viernes Santo)
- 10 de abril (Lunes de Pascua)
- 1 de mayo (Fiesta del Trabajador)
- 25 de julio (Santiago)
- 15 de agosto (Asunción)
- 12 de octubre (Fiesta Nacional)
- 1 de noviembre (Todos los Santos)
- 6 de diciembre (Día de la Constitución)
- 8 de diciembre (Inmaculada)
- 25 de diciembre (Navidad)

A estas jornadas hay que añadir dos festivos más que corresponde decretar a ayuntamientos y diputaciones.

**Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente**

# EL GOBIERNO VASCO DESTINARÁ 80.000 EUROS A LA MEJORA Y CREACIÓN DE ALOJAMIENTOS PARA PERSONAL TEMPORERO

- **Para garantizar unas condiciones de alojamiento digno y orientado a la integración durante su estancia en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca**
- **En la actualidad el registro de alojamientos para personal temporero incluye 136 inmuebles, tras incrementarse en diez en el último año, con capacidad para 1.386 personas**

El Gobierno Vasco dedicará un total de 80.000 euros a financiar la creación, adaptación o equipamiento de inmuebles destinados a ser alojamiento para el personal temporero que preste servicios en el sector agrario durante el presente año, tal como se detalla en la Orden de la Consejera de Desarrollo Económico, Sostenibilidad y Medio Ambiente, que el Consejo del ejecutivo autónomo ha aprobado en su última reunión. Se podrán beneficiar de estas ayudas tanto personas físicas como jurídicas, públicas o privadas, que sean propietarias de inmuebles destinados al citado fin.

Son subvencionables los proyectos o actuaciones dirigidas a incrementar y mejorar la red de alojamientos para personal temporero y a garantizar unas condiciones de alojamiento digno y orientado a la integración del mismo durante su estancia en el territorio de la Comunidad Autónoma Vasca. Ello puede incluir la construcción o, en su caso, la adquisición, y la habilitación, reforma, ampliación, acondicionamiento, mejora y equipamiento de dichos alojamientos, con la finalidad de poder cumplir la normativa exigida para ser alojamiento registrado.

Se establece en 20.000 euros la cuantía máxima de la ayuda para la construcción o, en su caso, la adquisición de inmuebles destinados a alojamiento para personal temporero. El plazo de ejecución de las inversiones y gastos será desde el 1 de enero de 2022 hasta el 31 de diciembre de 2022.

Según se detalla en la orden, para la determinación de la cuantía concreta de las ayudas se analizará casa caso en base a criterios tales como la ubicación del proyecto (en zonas preferentes o con alto grado de ruralidad), el tipo de persona promotora (acogida al programa de temporerismo agrario establecido en el Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero vigente, mujer agricultora, etc…), el número de plazas del alojamiento, o el coste medio de cada plaza.

Estas ayudas se enmarcan en el IV Plan Integral de Atención al Trabajo Temporero, que regula la planificación de forma coherente y coordinada de actuaciones que den respuesta a las necesidades suscitadas en torno al temporerismo. El objetivo final es disponer de suficiente número de plazas de alojamiento que reúnan las condiciones de habitabilidad y dignidad mínimas establecidas normativamente y dar cumplimiento a lo que el convenio exige.

**Plazo de solicitud**

El plazo de presentación de las solicitudes se inicia el día siguiente al de la publicación de la presente Orden en el Boletín Oficial del País Vasco y finalizará con el agotamiento total de los fondos, dando publicidad a esta circunstancia mediante Resolución de la Directora de Desarrollo Rural y Litoral, que se publicará en el Boletín Oficial del País Vasco, o hasta el 15 de noviembre del presente ejercicio.

El modelo de solicitud se encontrará disponible, desde el día siguiente de la publicación de la Orden en el BOPV, en la sede electrónica de la Administración Pública de la Comunidad Autónoma de Euskadi: https://www.euskadi.eus/servicios/1013808. Las personas físicas podrán presentar su solicitud tanto de forma presencial como electrónica.

**Economía y Hacienda**

## EL GOBIERNO VASCO CONVOCA EL I PREMIO ALBERTO ALBERDI A LA MEJOR TESIS DOCTORAL EN RELACIÓN CON LA ECONOMÍA VASCA

El Consejo de Gobierno ha aprobado hoy martes la convocatoria del I Premio Alberto Alberdi a la mejor tesis doctoral en relación con la economía vasca.

Un premio que lleva el nombre del que fuera Viceconsejero de Economía, Finanzas y Presupuestos del Gobierno vasco hasta 2020 como reconocimiento por los principios y valores de servicio público encarnados en su trayectoria. Una carrera profesional que aunaba en la persona de Alberto Alberdi, además del reconocimiento y respeto de sus colegas de profesión, su vocación de servicio y su incansable capacidad de análisis y trabajo para transformar la economía vasca y hacerla más productiva a la vez que más justa y equitativa.

Asimismo se considera que este Premio es un buen instrumento para incentivar a la juventud a que estudie y profundice en el conocimiento de la economía vasca e invitar a las y los jóvenes investigadores a seguir la trayectoria profesional marcada por el liderazgo de Alberto Alberdi.

Junto a ello, esta convocatoria tiene por objetivos, entre otros, aflorar el potencial investigador y descubrir personas jóvenes con talento y e interés en el ámbito económico y facilitar su incipiente carrera investigadora, así como impulsar la investigación en economía aplicada y aprovechar la capacidad intelectual y talento de nuestra juventud para mejorar la economía vasca.

De acuerdo a las bases reguladoras de este premio, solo podrán participar en el procedimiento de concesión del Premio las tesis doctorales que hayan sido defendidas y aprobadas en cualquiera de las universidades de la Comunidad Autónoma de Euskadi, en el plazo comprendido entre el 1 de enero de 2019 y un mes después de publicada en el Boletín Oficial del País Vasco la Orden aprobada hoy en Consejo de Gobierno, siendo este también el plazo límite para presentar solicitudes.

El premio consiste en una compensación económica de 6.000 euros para la persona autora, cuya tesis recabe la mayor puntuación entre los miembros del jurado calificador, así como la publicación y divulgación del trabajo de investigación y sus principales conclusiones.

**Convenio con las universidades vascas**

Por otra parte, el Consejo de Gobierno también ha aprobado hoy la suscripción del primer convenio con las tres universidades vascas (Universidad del País Vasco, Deusto Business School-Universidad de Deusto y Mondragon Unibertsitatea) para la realización de prácticas académicas externas extracurriculares del alumnado de la titulación de Master Universitario Oficial.

Unas prácticas académicas con las que se pretende propiciar el potencial investigador de los alumnos y alumnas con talento y preocupación en el ámbito económico, así como facilitar su incipiente carrera investigadora mediante las prácticas de formación y la realización del Trabajo Fin de Master.

**Educación**

## EDUCACIÓN DESTINA 500.000 EUROS PARA PROYECTOS DE MOVILIDAD EN EL ÁMBITO DE LA FORMACIÓN PROFESIONAL, DENTRO DEL PROGRAMA ERASMUS+

El Consejo de Gobierno, a propuesta del consejero de Educación, ha aprobado en su reunión de hoy, la Orden por la que se convocan ayudas económicas para la organización y desarrollo de las acciones de movilidad para las personas por motivos de aprendizaje en el ámbito de la Formación Profesional, dentro del marco del Programa Erasmus+.

El objeto de esta Orden es el de convocar ayudas económicas, por un importe global de 500.000 euros, para la cofinanciación de proyectos de movilidad aprobados dentro del Programa de Erasmus+, convocatoria 2022, destinadas a movilidad por motivos de aprendizaje, siempre y cuando se desarrollen durante el curso académico 2022-2023. El personal destinatario final de estas movilidades deberá ser el alumnado matriculado o titulado en la Formación Profesional del País Vasco o docentes de la Formación Profesional Vasca.

La contribución financiera de la UE para las acciones de movilidad no alcanza el total del presupuesto para llevarlas a cabo, por lo que estas convocatorias se hacen imprescindibles para cubrir el porcentaje de presupuesto que no cubre la financiación comunitaria.

### 927 alumnos y 569 docentes

Durante este último curso 2021-2022 un total de 927 alumnos y alumnas de FP de Euskadi, tanto de centros públicos como de concertados, han sido beneficiarios de estas ayudas para participar en proyectos de movilidad Erasmus+, mediante la convocatoria del pasado año 2021. Por su parte, el número de personal docente beneficiario asciende a 569.

Las acciones de movilidad tanto de estudiantes como del personal docente del Programa Erasmus+ que apoya esta convocatoria, y que se realizan en diversos países europeos, persiguen los siguientes objetivos:

- Apoyar a los participantes en la formación y adquisición de conocimientos, destrezas y cualificaciones para su desarrollo profesional.
- Aumentar las oportunidades de formación en el extranjero del alumnado de FP
- Proporcionar a los estudiantes las habilidades necesarias para la transición del ámbito de la educación al mercado laboral.
- Facilitar el desarrollo de prácticas innovadoras en el ámbito de la Formación Profesional y su transferencia, incluso entre los distintos países participantes.

**Salud**

## EL DEPARTAMENTO DE SALUD DESTINA UN AÑO MÁS 300.000 EUROS A ENTIDADES SIN ÁNIMO DE LUCRO QUE TRABAJAN EN LA PREVENCIÓN Y EL CONTROL DEL VIH/SIDA, LA HEPATITIS C Y LAS INFECCIONES DE TRANSMISIÓN SEXUAL

El Consejo de Gobierno ha sido informado hoy de la Orden de la Consejera de Salud, Gotzone Sagardui, por la que un año más se convocan ayudas dirigidas a entidades de iniciativa social y sin ánimo de lucro que durante 2022 desarrollen actividades de prevención y control del VIH/sida, Hepatitis C (HC) y de las Infecciones de Transmisión Sexual (ITS) en el ámbito de Euskadi, por importe de 300.000 euros.

El Departamento de Salud mantiene así el impulso a la destacada labor que desarrollan en Euskadi estas organizaciones en el campo del VIH/sida, la Hepatitis C y las ITS, imprescindible junto a la acción de las distintas administraciones públicas en la causa común de prevenir la transmisión de estas infecciones y mejorar la situación de las personas ya portadoras del virus.

El plazo de presentación de solicitudes será de un mes, a partir del día siguiente a la fecha de publicación de esta orden en el Boletín Oficial del País Vasco.